20 27


ATAUNGO DOMOA

Domo bat osatzen da dentsitate txikiagoko harkaitz batek gora egiteko joera duenean, trinkoagoak diren harkaitzetako gainjarritako estratuak tolestuz eta/edo apurtuz, eta era horretan kupula edo “domo” motako egitura bat eratzen da.


Higadurak ere jardun egiten du, beraz, goiko geruzak desegiten dira, lurreko azalera ateratzen diren heinean.


Ataungo domoan, San Martin hirigunetik gertu, trinkotasun gutxiko materialen masa hori Keuperreko materialez osatuta dago eta uneko azaleratik 700 m inguruko sakoneran kokatuta dago.

Gaur egun, Ataunen ikus dezakeguna 4 x 3 kilometro inguruko elipsoide itxurako planta duen kupula forma bat da, erdi desegina, gailur-lerro bat eratuz, itsaso mailatik 600 eta 900 metroko altuerarekin. Artzateait-



Iturria: Google Earth, 2009.






Ataungo domoaren hipsometria

1. San Martin (Ataun).
2. Aitzarterreka (ibaia).
3. Kobatxoerreka (ibaia).
4. Artzateaitza (649 m).
5. Leizadi (947).
6. Arastortz (828 m).
7. Jentilbaratza (457 m).
8. Bedamaburu (757 m).


Itzalen mapa 2012 + Hondo hipsometrikoa 2012. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 568802 m// Y: 4760159 m.

za (649 m), Leizadi (947 m), Arastortz (828 m) Jentilbaratza (457 m), etab. mendiak dira. Erdian Bedamaburu aurkitzen da (757 m).

Bi ubide txikiek domoaren zonaldea drainatzen dute nagusiki: Aitzarterreka eta Kobatxoerreka, Agauntzaren adarrak, domoak, bere erdialdean, azaleratzen dituen lutitetan, marga harearrietan eta margetan eragina sortuz.




Domo generiko baten eraketa sinplifikatua.



Itzalen mapa 2012 + Litologia. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

LITOLOGIA

1. *Lutitak, harearri margak eta margak (Behe kretazikoa).*
2. *Kareharri mikritikak errudista eta koralekin, masiboak edo estratifikatuak.*
3. *Margak eta margokareharriak.*
4. *Margokareharriak eta marga kareharriak.*
5. *Biltegi alubialak.*



Geologia mozketa.

B: Beasain - Etxarri Aranaz errepidea.

C: Izarzu Harriak.

1. *Keuper.*
2. *Jurasikoa.*
3. *Lutitak, harearri margak eta margak (Behe kretazikoa)*
4. *Kareharri mikritikoak errudista eta koralekin, masiboak edo estratifikatuak.*

5 Margak eta margokareharriak.